

Saramagoren hirugarren saiakera

NOBELA HONEK, bere bizitzan idatzi zituen azkenetakoak, zabaldu zizkidan Jose Saramagoren (1922-2010) unibertsoaren ateak, orain oso aspaldikoa iruditzen zaidan garai batean. Ez dakit eta ez dut inoiz jakingo zer gertatuko zen Saramago beste obra baten bitartez ezagutu izan banu; dakidana da *As intermitências da morte*-k sukar halako bat eragin zidala, hilabete gutxian Azinhagakoaren ia nobela guztiak erosi eta irenstera bultzatu ninduen. Betekada haren ondotik oso gutxitan itzuli naiz harengana. Hau da, hain zuzen, berriz irekitzeko adorea eduki dudana Saramagoren eleberri bakanetakoa.

Beste zenbaitetan bezala (*Ensaio sobre a cegueira*, *Ensaio sobre a lucidez*), Saramagok egoera ez-erreal bat erabiltzen du errealitatearen analisi gupidagabea egiteko. Kasu honetan, abiapuntua da izena aipatzen ez den baina Portugal izan daitekeen herrialde batean –beste konstante bat Saramagoren bibliografian–, halako batean jendeak hiltzeari uzten diola. Eleberriaren lehen erdian, egileak maisutasunez darabil abiapuntu hori mendebaldeko gizartearen miseria guztiak agerian uzteko. Analisi soziologiko gordina eskaintzen zaigu pasarte horietan, idazlearen trebetasunari esker eleberri izaera kontserbatzen duena. Ez zatekeen oso harrizkoa izango izenburua *Ensaio sobre a morte* ipini izan balio. Edo *Ensaio*

As intermitências da morte
Jose Saramago.
Caminho (2005).



sobre a velhice. Zeren, heriotzaz bainoago, zahartzaroari –zahartzaro eterno bati– buruzko hausnarketa egiten du hau idazterako 80 urteak beteak zituen Saramagok.

Aipatutako beste nobela bietan legez, lehen zati hori suertatu zitzaidan gustukoena. Izan ere, emandako beste adibideetan nola –*Ensaio sobre a lucidez*-en, batik bat– kontakizunaren hariak biraketa bortitza egiten du *As intermitências da morte*-ren erdian. Heriotzak bueltatzea erabakitzen duen momentuan, hain zuzen. Une horretatik aurrera, ordura arteko gizarte osoaren ikuspegi panora-

mikotik jaitsi eta pertsonaia biren gainean jarriko du lupa Saramagok; batetik, heriotza bera, emakume batengan haragitura. Bestetik, hil behar lukeen baina hiltzen ez den gizona, izenik gabekoa portugaldarraren narratiban ohikoa denez. Ezin esan eleberriak kalitatea galtzen duenik bigarren zati horretan; baina niri, ez jakin zergatik, ezinegona eragin zidan bat-bateko ikuspuntu aldaketak.

Aldiz, oso erakargarri egin zitzaizkidan deserosotzat jotzen diren prosa saramagotarraren ezaugarri bitxi horiek: paragrafo eta esaldi amaiezinak, puntuazio arau konbentzionalenganako mespretxua... Lagun alemaniar batek, behin, etxeko apalategian zeukan Saramagoren eleberria erakutsi zidan, bere ama hizkuntzara itzulita. Portugaldarraren idazteko era berezi hori alemanaren gramatikara eramatea zein zaila den esplikatu zidan, pasarte batzuk zein latzak gertatzen zitzaizkion... Portugaldarren obratik hain gutxi euskaratu izanaren zergatiak antzeman nituela iruditu zitzaidan orduan. Espero dut, hori bai, noizbait eleberri hau euskaraz argitaratzekotan, izenburua ez izatea Interneteko pare bat gunetan aurkitu dudana bera: Heriotzaren aldizkotasunak. ■



Unai Brea

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215

info@cuadrabus.com

iRUÑAZARRA
TaBERNa • JaTeIXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)

T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org